



## AKTA EZOHIKO BILERA 2018/03/20: ELKARRIZKETA ZIBILERA KO MAHAIA

### Partehartzaileak:

#### **PRESIDENTEA**

- PABLO GONZALEZ GUTIÉRREZ jn., FEVASen ordezkari moduan, Ezintasun intelektuala dutenen aldeko Elkarteen Euskal Federazioaren ordezkaria.

#### **IDAZKARIA**

- MARIA YOLANDA MENCHACA BARRUETABEÑA and., Gizarte Zerbitzuetako teknikaria (Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza)

#### **KARGUAGATI KO KIDEAK (boto-eskubiderik ez dutenak) /**

- BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ and., Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua
- LIDE AMILIBIA BERGARETXE and., Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuordea.

#### **KIDEAK (boto-eskubidea dutenak)**

- EMILIO SOLA BALLOJERA jn., Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria
- JOSÉ ALBERTO VICENTE OCHOA jn., ASTIALDI SAREAn ordezkari moduan, aisialdi arloan gizartean esku hartzeko eta Euskal Herriko haur, nerabe eta gazteak hezteko erakundeen sarea
- JESUS ANTONIO PIZARRO PORTILLA jn., CONGDE Euskadiren ordezkari moduan, Euskadiren garapenerako GGKEen Koordinakundea.
- ALFONSO LÓPEZ MARTÍNEZ jn., EAPN Euskadiren ordezkari moduan, pobrezia eta giza bazterketaren aurkako europar sarea Euskadin.
- TXEMA FRANCO BARROSO jn., EHLABEren ordezkari moduan, Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkarte
- MIKEL MALCORRA OCHOTORENA jn., ELKARTEANen ordezkari, Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa eta/edo Organikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea
- M<sup>a</sup> JOSÉ CANO MESÍAS and., FEDEFESen ordezkari moduan, Euskadiko Eri Psikiko eta Senide Elkarteen Federakuntza
- TXEMA ODRIOZOLA AZURMENDI jn., FEDERPENen ordezkari moduan, Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteetako Lurralde Federazioaren ordezkaria
- ESTEBAN RIVAS CALZADA, jn., GIZATEAren ordezkari moduan, Gizarteratzeko eta laneratzeko Euskadiko enpresen elkarte
- SORAYA CHACON RAMOS and., HARRESIAK APURTUZen ordezkari moduan, Euskadiko etorkinei laguntza emateko GKE koordinatzailea

- BORJA DOVAL FERNANDEZ-CORMENZANA jn., HIREKINen ordezkari moduan, Euskadiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Federazioa.
- NATALIA DIEZ-CABALLERO ALONSO and., HIRUKIDEn ordezkari moduan, Euskadiko Kide Ugariko Familien Elkarte
- MIKEL MIRENA AGIRREZABAL ONDARRA jn., LARES Euskadiren ordezkari moduan, adindunen egoitza eta arreta-zerbitzuen euskal elkarte – sektore solidarioa.
- ELSA FUENTE DO-ROSARIO and., Euskadiko UNICEFeko komiteko ordezkari moduan.
- JAVIER DOMÍNGUEZ ENTENZA jn., ONCEren ordezkari moduan, Espainiako itsuen erakunde nazionala
- MARÍA ÁNGELES DÍEZ LÓPEZ, and., REAS EUSKADIn ordezkari moduan, Ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea

**GONBIDATUAK :**

- IÑIGO URKULLU RENTERIA jn., Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaria.
- MIKEL BARTUREN NUÑO jn., *SAREEN SARE*aren koordinatzailea.
- RAFAEL LOPEZ-AROSTEGI jn., *EDE* Fundazioa
- PEDRO M<sup>a</sup> BEITIA LOLO jn., *EDE* Fundazioa.

**Lekua:** Vitoria-Gasteiz - Lehendakaritza

**Eguna:** 2018/03/20 (asteartea)

**Ordua:** 16:35 - 17:15

**Mota:** Ezohikoa

**Bilerako aztergaiak:** 1. Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala sustatzeko estrategia eta 2018-2020 Legegintzako Plana

**Hizkuntza:** Gaztelania

Bilkura 2018ko martxoaren 20ko 16:35ean hasi da.

Hirugarren Sektorea Sustatzeko Estrategiaren (HSSEaren) 2018-2020ko Legealdiko Plana **lehendakariaren aurrean** aurkezteko **ezohiko bilera** denez, lehendakariak hartu du hitza, eta adierazi eguna garrantzitsua dela Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialarentzat.

Nabarmendu du Hirugarren Sektore Sozialaren Legean, zioen azalpenean, jasotzen dela parte-hartze sozial antolatua herritartasun aktiboaren adierazgarri dela, eta lagungarria

gizarte zibil heldua eta demokrazia parte-hartzailea eratzeko. Esan du lege horrek erantzukizun publikoko zerbitzuak emateko eredu mistoa jasotzen duela. Era berean, Gobernuak sailen parte-hartzea azpimarratu du, bai eta urteetan zehar egindako lana ere, berekin ekarri baitu gaur aurkezten den lana, Hirugarren Sektorea Sustatzeko Estrategiaren 2018-2020ko Legealdiko Plana.

Jarraian, esan du erakundeak ezinbesteko aktibo soziala direla gizarte demokratikoa, trinkoa eta berdintasunezkoa eratzeko, gizarte-premiei osoki erantzuteko, pertsonen beren parte-hartzearekin.

Azkenik, berriz nabarmendu du gobernuaren konpromisoa dela arazo sozialei aurre egiten jarraitzea, eta berriz eskertu die elkarteei izandako parte-hartzea.

Ondoren, Elkarrizketa Zibilaren Mahaiko (EEZMko) lehendakariak hartu du hitza, PABLO GONZALEZ GUTIÉRREZ jaunak, eta lehendakariari EHSSaren ekitaldietan parte hartzea eskertu dio, esker ona adierazi dio. Gero esan du MARIA JOSE CANO MESÍAS andreak aurkeztuko duela Estrategiaren Legealdiko Plana, FEDEAFESeko ordezkariak, parte hartu baitu plana idazteko lanetan Gizarte Politiketako sailburuorde LIDE AMILIBIA BERGARETXE andrearekin, EDE Fundazioaren laguntza izanda.

Zehaztu du Estrategiak gobernantza-prozesua den prozesu parte-hartzaile bat jasotzen duela. Eta nabarmendu eredu mistoaren eta lankidetzaren alde egitea dela, eta Estrategiaren barruko 12 jarduketa aukeratu direla, legealdi honetan gauzatzeko. Era berean, adierazi du kontzertu soziala tresna egokia dela parte hartzeko eredu hori zaintzeko, eta Eusko Jaurlaritzaren HSSarekiko transbertsalitatea nabarmendu du. Alde horretatik, esan du Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak eta Lehendakariak oso esku-hartze aktiboa izan dutela elkarrizketa zibilaren printzipioa ezartzen eta EEZMa indartzen.

## 1. EHSSa Sustatzeko Estrategia eta 2018-2020 Legegintza Plana.

MARIA JOSÉ CANO andreak hitza hartu du, eta Estrategia hori egiten pate hartu duten erakunde guztiak aipatu ditu, bai eta MANUEL MERINO jauna ere, *LARES EUSKADI*k lanbatordean zeukan aurreko ordezkaria.

HSSSEaren 2018-2020ko Legegintzaldi Planean aukeratutako jarduketaren edukiez, irizpideez, helburuez eta xehetasunez aritu da, akta honetan eranskin moduan jasotako aurkezpen-laburpenaren oinarrituta.

Iruzkina egiteko txandan, BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ sailburuak eskerrak eman dizkio lehendakariari Mahaiaren deialdira etortzeagatik, eta aitortu du xede komun bat lortzeko zenbait profiletako elkarteek egindako ekarpena.

Adierazi du Jaurlaritzako gainerako zailentzat handia izan dela Elkarrizketa Zibila tresna moduan ezagutzea, EEZMaren bidez egituratuta, aukera ematen baitu hirugarren sektoreko erakundeek parte har dezaten politika publikoen prestaketan, gauzapenean, jarraipenean eta ebaluazioan, esku-hartze sozialaren esparruan. Nabarmendu beharreko balioa eragile guztien arteko adostasuna eta parte-hartzea dela azpimarratu du, euskal gizartearen dauden uste guztiak bateratzea ahalbidetzen duelako.

LIDE AMILIBIA sailburuordeak, bestalde, berretsi du oso lan handia egin dela, eta egin dutena eskertu die RAFAEL LOPEZ-AROSTEGI jaunari eta PEDRO M<sup>a</sup> BEITIA LOLO jaunari (*EDE Fundazioa*). Gehitu du Estrategiak zenbait urtetarako ibilbide-orri bat zehazten duela, eta zabalduz joango dela. Azkenik, gainerako parte-hartzaileak zoriondu ditu egindako lanagatik, eta parte-hartzea eskertu die.

PABLO GONZÁLEZ lehendakariak ahalegina eskertu die bertan dauden guztiei bilerara etortzeagatik, eta agur esan ondoren, bilkura amaitu egin da 17:15ean.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 20a.

**O. E.**

Pablo González	Gutiérrez jauna	M <sup>a</sup> Yolanda	Menchaca	Barruetabeña
Elkarrizketa	Zibilerako	Mahaiko	andrea	
lehendakaria			Elkarrizketa	Zibilerako
				Mahaiko
				idazkaria.

***Aktaren eranskinak:***

Eranskin bakarra: HSSSEaren 2018-2020ko Legegintzaldi Plana dela eta, pentsatutako aurkezpena.